

KEZKAK USTU

1.—*Jauna, espetxeen egondakoa naz, eta neuri kalte egin daustenen bat aitatu-teak bakarrik be, odola biztuten daustela esan be egiten dot: "Jesus gurutzean geugaitik ezpalegok, garbituko neu-kezak danak". Jesusegaz gogoratu, pekatu egin ete dotan bildurrez nago. Zer deritxo? — Orretan, ez dozu pekaturik egin. Odola biztuteak gizona zarala esan gura dau, irañak mindu zaituala. Ta Jesukristo gaitik lagun urkoari kalterik gura ez egitea-ta, irabaziak, merituak gauza. Eta Jesukristo gaitik euren ondozuz. Tako zerbait egiten ba'dozu, obeto.*

2.—*Purgatorioko arimen maitale naz. Gurutzbide bakotxeko parkamen osoa irabazten dala-ta, albait geien egin gura neunkez. Zer da bear-bearrezko? — Iru gauza: 1) pekatu astunik ez eukitea; 2) Pasiñoko Jesus'en egikizunen bat pentsauaz, ertarako ipiñita dagozan gurutzeen aurretik igarotea; 3) Aita Santuaren asmoetarako eskatutea. Lagun askoren artean egiten danean, naikoa da, esaterako, aurretik errebatzen dana-nak gurutzeak igarotea ta besteak dagoan lekuan jazokun edo estaziño harkotxeen zutundutea.*

3.—*Errosarioa egunero errebatzeko diñaust amak. Baña nire buruan lekurik ez letaniak sartzeko. Zer egin? — Afletik eta enparauen izenak aitzu ta naiko leku-rik eukiko dozu letaniak ikasteko. Onan be jakin egizu errosarioa errosario izateko zer bear dan: 1) ezkutapenak go goratu; 2) Aita gure bat eta amar Agur Mari errezaу ezkutapen bakotxeko. Onelan bost gertaera edo misterio esan eta kitu; errosarioa esanda dago. Ondo da letanik eta beste aurreko otoi tzak esatea, baiña ez dira bearrezkoak.*

4.—*Erroma'n ikasteak eginda, etorri yatan seme karmeldarrak Aita Santuak bedinkatutako erosorioak ekarri daus-taz. Parkamen askoz aberastuta dagoz, Gurean baiña, sekulebedarra ebagiten ez ba'da, galtzeraiak-edo konpontzen ibilli bear. Zer egin errosario onen par-kenak irabazteko? — Errosario on ori*

aldean eroan eta deboziñoz errezaу. Es-kuak bearrez-edo lotuta dagozanean, errosario garauak agurmariko erabilli bearrik ez dago; aldean eroanaz, dauezan parkapenak irabazten dira, beste baldintzak bete ezkero.

5.—*Andra barritsua be ba-naz. Osterantzean be errosarioa jarraian esateko estu ibilten naz. Umeak dirala, lagunen bat datortzula... Ta bat baiño geiago errezaу gura neukez egunaro. Zelan arteztu gauzak? — Eba'ren alabatxu, arteztu leiken gauzea dozu ori. Begira, errosarioa erro-sario izateko, ez da bearrezko dana ja-rraien esatea. Misterio bakotxa, au da, Aitagure bakotxeko amar Agur Mari, bai eten barik esan bear dira; batetik bestera, luzeroan esan barik ez itxi. Mis-terio batetik bestera, egun barruan izan ezkero, bardin dautso onenbeste edo arenbeste aldi izan arren.*

GIZONA TA ASTOA

Gizona astoarekin itundu ei zan
Egun batean,
Bakoitzak besteari erakus naiez
Berba legean.

Astoa ekin t'ekin aritu arren
Aldi luzean,
Tautik ikasi gabe sartu omen zan
Bere ukuluan.
Gizonak, berriz, arin ikasi zuan
Asto-arrantza,
Onekin arturikan, igarri barik,
Abere antza.

ONDORENA

Kirten batekin autuz ekin ezkero
Sarri askotan,
Gizonik argienak artu daroe
Kirten abotsa.

Arrugain